


GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



ESTHER
FERRE

Elkarri
lotutako guneak

martxoak16 → → ekainak10

Esther Ferrer. Elkarri lotutako guneak

- Datak: 2018ko martxoak 16–ekainak 10
 - Komisarioa: Petra Joos
-
- Espainian performancearen aitzindarietako bat den Esther Ferrer artistaren inoiz ikusi gabeko bederatzi instalazio egongo dira erakusketa honetan; performancearen generoa denbora eta espazioa ekintzan parte hartzen duen publikoaren presentziarekin konbinatzen dituen arte gisa definitzen du artistak berak.
 - Ikuslearen askatasuna baloratzen du Ferrerrek guztiaren gainetik; horregatik, ez dio ondoriorik eskaintzen, galderak bakarrik, hark egin dezan bere interpretazio propioa, modu autonomoan.
 - Erakusketako instalazioetako askok Ferrerren ibilbidean funtsezkoa izan den alderdi baten gaineko hausnarketa egiten dute: espazioaren eraikuntzaren gainekoa, hain zuzen ere.
 - *Munduko barreak* lanean, arte-objektu bilakatzen da barrearen soinu organiko, natural eta iragankorra, denboran eta espazioan zehar hedatzerakoan, eta ikuslearen esku uzten du soinu horren erreprodukzioaren ordena, barre-kontzertu espontaneo bide emanaz.

Guggenheim Bilbao Museoak *Esther Ferrer. Elkarri lotutako espazioak* aurkezten du, Espainian performance artearen erreferentziako artistetako bat den horren instalazio berriz osatutako erakusketa. Esther Ferrerren lan-ildoarekin eta pentsaerarekin bat etorriz, erakusketa osatzen duten hamaika lanetatik bi modu berezian aktibatuko dira artistaren performanceen edo publikoaren elkarrekintzaren bitartez.

1960ko hamarraldi amaieran bere karrera profesionala hasi zuenetik, Esther Ferrerrek (Donostia, 1937) forma eta material askoren bitartez garatu ditu bere pentsamendu-ildoak, eta performancearen artista aitzindarietako bat bihurtu da; genero hori honela definitzen du berak: “denbora eta espazioa publikoaren presentziarekin konbinatzen dituen artea; publikoa ez da ikusle hutsa, izan ere, hala nahi badu, ekintzan parte har dezake”.

Ikuslearen askatasuna baloratzen du artistak guztiaren gainetik; horregatik, ez dio ondoriorik eskaintzen, galderak eta zalantzak bakarrik, hark egin dezan bere interpretazio pertsonal propioa, modu autonomoan.

1967an, Zaj taldearen jardueretan parte hartzen hasi zen Esther Ferrer, Walter Marchetti, Ramón Barce eta Juan Hildagorekin batera; harrezkero, ekintzaren artea da bere adierazpen-bide nagusia. 1970etik aurrera, Zaj taldearekin kolaboratzeaz gain, lan plastikoak egiteari ekin zion berriro, esku hartutako argazkien, instalazioen, koadroen eta marrazkien bitartez, guztiak zenbaki bakoitien seriean, eta soinudun objektu edo piezetan oinarritutakoak. Bere lana 1960ko hamarraldian sortutako arte minimalista eta kontzeptualaren korrontearen

barruan sartzen da, eta hainbat sortzaile —Stephane Mallarme, Georges Perec eta John Cage, besteak beste— hartzen ditu erreferentziatzat, bai eta garai hartako feminismoak ere.

Zaj taldearekin lanean jarraitu zuen 1996. urtera arte, ekintza oso zuzenekin; urte hartan desegin zen taldea, Reina Sofia Museo Nazionalean egindako atzera begirako erakusketa baten ondoren.

Bere karrera luzean zehar, ekintza-artearen jaialdi ugaritan hartu du parte, museo ugaritan jarri du ikusgai bere lana eta hainbat sari jaso du Esther Ferrerrek. 1999an, Espainia ordezkatu zuen Veneziako Bienalean; 2008an, Premio Nacional de Artes Plásticas jaso zuen; 2012an, Gure Artea Saria eman zion Eusko Jaurlaritzak, eta 2014an, MAV Saria (Emakumeak Ikus-entzunezko Arteetan), Premio Velázquez de Artes Plásticas eta Marie Claires de l'Art Contemporain saria jaso zituen.

Erakusketa baten sarrera (Entrada a una exposición, 1990/2018)

Artistak azaltzen duen bezala:

“Azalak bizitza biltzen du, gizakiaren lehen jantzia da, bi munduren arteko muga da, eta Valery-k idatzi bezala, “gizakiaren zer sakonena” da. Baina azala ere bada gizakiaren gauzarik *azalekoena*, hitzak ondo dioen bezalaxe. Gure azala ispilu baten azalera bezalakoa da, olerkariak aipagai duen sakontasuna islatzen duena. Maitasunaren edo erasoaren subjektu, memoria, errituen euskarri, diskriminazioaren objektu, azala bada gure aldarte eta egoera fisikoari buruz kontrolatzeko zaila den informazio-iturria ere; izango da “arimaren ispilu” deitzen duenik ere. Baina gainera eta batik bat, azala gure sentsazioen sargunea da, azalaren eta sentsazio horiek garunera bideratzen dituen nerbio-sistemaren arteko interakzioei esker”.

Erakusketa baten sarrera (Entrada a una exposición) instalazioak nork bere azalaren kontzientzia hartzea bilatzen du, kanpoko elementu batekiko kontaktutik abiatuz; kasu honetan, lumen sentsualtasunaren bidez. Sentsazioak esnatzeko xedez pentsatutako lana da, ikuslearen harmena estimulatzeko eta hautemate-gaitasuna areagotzeko, “alerta” gozagarriko egoera batera bideratzeko eta erakusketaren gainerako atalen bisita prestatzeko. “Kontua da sentitzea, ez pentsatzea; pentsaraztea erakusketaren gainerako atalen lana izango da”. Lan honek sortarazten duen zentzumen-esperientzia kontrastean dago erakusketaren gainerako lanek eskaintzen duten esperientzia motarekin; soiltasuna, materialtasun minimoa eta ideia eta kontzeptu abstraktuen garapena dira nagusi beste lan horietan, hala nola *Proiektu espazialak (Proyectos espaciales)* lanaren atzean dauden eskema matematikoak.

Munduko barreak (Las risas del mundo, 1999/2018)

Umorea Esther Ferrerren lanaren elementu banaezina da. Hain zuzen ere, ironiaz betetako gizarteari buruzko begirada absurdua da artistaren berezko ezaugarria eta, horri esker, corpus artistiko oso kritikoa eraikitzen du.

Munduko barreak lanean, arte-objektu bilakatzen da erabiltzen duen barrearen soinu organiko, natural eta iragankorra, denboran zehar hedatzerakoan, espazioan ordenatzerakoan eta ikuslearen esku uzterakoan soinu horren erreprodukzioaren ordena.

Horretarako, lurrean jarritako mapamundi handi baten hainbat punturen gainean zintzilik jartzen ditu gailu elektroniko batzuk. Berrogei *tablet* baino gehiago dira, adin, genero eta jatorri ezberdineko pertsonen ahoen irudiak erakusten dituztenak, eta haien barreen soinua erreproduzitzen dutenak. Publikoaren elkarrekintzaren ondorioz aktibatzen dira soinu-fitxategiak, bisitari bat hurbiltzen den aldiro jartzen baitira martxan, artistak “barre-kontzertu” espontaneo deritzenak ospatzeko aukera emanez. Barre-taldearen erreprodukzioa hausaz aktibatzeke ere prestatuta dago instalazioa, bisitariak maparen gainean hartzen duten kokapenaren arabera; era horretan, kultura eta hizkuntza talde ezberdinek barrea modu ezberdinean moldatzen dutela ikusi ahal izango du publikoak.

Instalazioak aukiekin (Instalaciones con sillas, 1984 eta 2018)

“Beti interesatu izan zaizkit aukiak; objektu ohikoak dira, kasik interesgabeak, baina euren presentzia hutsak gela baten espazioa molda dezake”. Esther Ferrerri beti eman izan dio arreta zenbat auki eredu sortu diren, eta sortuko diren aurrerantzean ere, horren gauza oinarrizkoa eta egunerokoa izanik. Batez ere, aukien egituraren ezaugarri “antropomorfitikoa” erakartzen du Ferrer, eraikitzeke erabili den materiala gorabehera. Aukia bat ikusteak gizakia dakarkio gogora, horrek iradoki dezakeen guztiarekin. Tapizak eta apaingarriak kendu eta aukiarekin “hezurdura” azaltzen denean: modu ia organikoan antolatzen diren lerro zuzen edo bihurrien multzoa. Aukia baten egiturazko aberastasun hori multzo batean konbinatzen denean, izan horma baten gainean, izan espazioa okupatuz, sortu daitezkeen formen aniztasuna txundigarria izan daiteke.

Bi instalazio aurkezten dira erakusketa honetan: *Instalazioak aukiekin* (1984) sailekoa bata, *Aukiak zintzilik (Sillas suspendidas, 2018)* sailekoa bestea; biak ere erakusketa-espazio batean lehen aldiz gauzatuko dira.

Proiektu espazialak (Proyectos espaciales, 1990/2018)

1970eko hamarraldian hasi zen Esther Ferrer bere *Proiektu espazialak* sailean lanean. Erakusketa honetan aurkezten diren instalazioak 1990tik 2006ra arteko marrazki edo maketen proiektuei dagozkie, eta arkitekturako maketen antzerako kartoizko egituren bitartez diseinatuta daude.

“Inoiz ez dut izan nire proiektuak eskala handiko espazio fisiko batera eramateko interesik; maketak funtzionatzen badu, lana egintzat jotzen dut. Espazio erreal batean egin ezin badut, ez da ezer gertatzen. Prozesua da niri interesatzen zaidana”.

Bere sorkuntza-prozesuan, maketaren plano ezberdinetan finkatzen ditu hariak artistak, horien euste-puntuen arteko distantzia erregularrak neurtuta, eskema geometrikoei jarraituz espazioa zeharkatzen duten lerroen itxura har dezaten jartzerakoan. Dituzten aldaera amaigabeak dira lan horien sail-izaeraren arrazoia: xehetasun

txiki batzuk aldatze hutsarekin —hala nola, hari kopurua edo harien arteko distantzia—, erabat aldatzen da oinarritzko planteamendu matematikoa, eta emaitza ezberdin ugari lortzen da.

Instalazio horietarako, hariak, kableak, elastikoak edo sokak erabiltzen ditu Esther Ferrerrek, elementu hauskor eta egunerokoak, eta horma biluzien, zoruaren eta sabaiaren artean jartzen ditu, urkilaz edo iltzez lotuta. Era horretan, elementu gutxi batzuekin esku hartzen du espazioan, ikuslearen pertzepzioa aldatzen duten ezaugarri berriak emanez.

Zorroztasun matematiko handi batekin lantzen ditu elementuok, espazioaren pertzepzioa eta bere mugimendua aldatzen dituzten erritmo, norabide eta erretikula ezberdinak sortzeko neurtutako tarte ezberdinetara lotuta euste-urkilak. Horrela, izkinetan hausten edo tolesten diren angeluen bitartez, forma geometrikoak sortzen dira.

Espazioari buruzko hausnarketa hau egiten du artistak: “Instalazio batzuetan arauren baten pean jardutea erabakitzen dut —ahal den neurrian nire subjektibotasunetik ihes egiteko modua da—, edo nik erabakitzen dudana sistemaren baten arabera aritzea —adibidez, zenbaki bakoitiaren seriea—. Beste batzuetan, ordea, hausaz egituratzen ditut, haien erritmoa ezartzen duen intuizioaren gidaritzapean”.

Serie honetako lanei *Instalazio espazialak* izenburua jartzearen arrazoia da artistarentzako espazioan marraztearen antzerako zerbait dela. Perspektibaren simulaziorik gabe egiten ditu marrazkiak hiru dimentsiotan, haiek baitira sortzen dutenak, espazioa markatzen eta okupatzen dutenak eta, batez ere, definitzen dutenak, beren presentzia hutsarekin hura eraldatuz. Eraldaketa hori hobeto nabaritzen da ikusleak mugimenduan behatzen badu, perspektiba ezberdinak ikusiz.

Artistaren beraren esanetan, “egia esan, espazioa ez da obraren euskarria, ‘lehengai’ baizik: bai espazio naturala, baita oro har ahalik eta elementu gutxien erabilita neureganatzen dudana espazio arkitektonikoa ere. Nire kezka izaten da ez gehiegi esku hartzea, ez ‘enbarazu egitea’, ‘gardena’ izaten jarrai dezana espazioak, aireak zirkulatu dezana. Agian horrexengatik eraikitzen ditut nire instalazioak, orokorrean, hari eta kable finekin. Eraginkortasuna bilatzen dut: ez dekoraziorako gairik, ez apaingarririk, funtsezkoa baino ez”.

DIDAKTIKA

La programación educativa y cultural de esta exposición presenta, entre otras, las siguientes actividades:

Topaketa artistekin: Esther Ferrer (Martxoak 14)

Esther Ferrer, Espainian performance-artean aitzindari izan den artista, bere erakusketaz eta sormen-prozesuaz mintzatuko da Petra Joos erakusketaren komisario eta Guggenheim Bilbao Museoko arte arduradunarekin.

Performancearen historia laburra (Maiatzak 16 eta 17)

Álvaro Rodríguez Fominayak, Andaluziako Sorkuntza Garaikideko Zentroko (C3A) zuzendariak, performancearen artearen gakoak azalduko ditu: genero horren historia, obra garrantzitsuenak eta 1950eko hamarkadatik hona egondako protagonista nagusiak.

- Maiatzak 16: Performance garaikidearen oinarri historikoen analisia: Allan Kaprow eta Fluxus mugimendua, Ipar Amerikako eta Europako mugimendu kontzeptuala, *body art*, akzionismo vienarra, performance-pintura, estrategia feministak performancean, etab.
Ikertzeko-kasua: Yoko Ono
- Maiatzak 17: Performancea 1980ko hamarkadatik gaur egun arte. Marina Abramović eta performance iraunkorra. Aktibismoa eta performancea, eta performancea eta harreman-performancea, gaur egunera iritsi arte Tino Sehgal-ekin. Ikerketa-kasua: Esther Ferrer. Aurrekariak, Zaj.

Barrearen laborategia obraren dinamizazioa (Erakusketaren baitan)

Esther Ferrerren *Munduko barreak* (*Las risas del Mundo*, 1999/2008) lanarekin batera, une jakin batzuetan bisitariak aukera izango dute beste pieza batekin elkar eraginean aritzeko: *Barrearen laborategia* lanarekin. Beren barreak grabatu ahalko dituzte, bai eta gai horri buruzko bibliografia kontsultatu ere. Pieza hau egunero aktibatuko da, ordu hauetan: 10:30–12:30 eta 15:00–17:00

Kontzertua: Esther Ferrer eta Munduko barreak (Maiatzak 19)

Esther Ferrer. Elkarrizketak guneak erakusketaren eta *Munduko barreak* lanaren inguruan antolatutako ekintza.

Azaleko irudia:

Esther Ferrer

Proiektu espazialak saila, 1980ko hamarkada

Maketa

Neurri aldakorrak

Esther Ferrer Artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbao, 2018

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoa buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.eus (prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:
Esther Ferrer. Elkarri lotutako guneak
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Esther Ferrer

Napoleonen triangela (Triángulo de Napoleón), 1980ko hamarkadaren bukaera


Koloretako errotuladoreak kartoi gainean

Maketa

15 x 20 cm

Esther Ferrer Artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbo, 2018



Esther Ferrer

Proiektu espazialak horma gainean saila (Serie Proyectos espaciales sobre muro),

1977-1978

Horma-pintura eta haria

Maketa

Neurri aldakorrak

Esther Ferrer Artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbo, 2018



Esther Ferrer

Proiektu espazialak horma gainean saila (Serie Proyectos espaciales sobre muro), 1977/2018

Hari grisa eta horma-pintura

Kokapen zehatzeko neurriak

Esther Ferrer artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Erika Ede



Esther Ferrer


Proiektu espazialak saila (Serie Proyectos espaciales), 1977

Tinta paper milimetratu gainean

21 x 29,5 cm

Esther Ferrer Artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbo, 2018



Esther Ferrer

Proiektu espazialak saila (Serie Proyectos espaciales), 1990/2018

Hari zuria eta pintura

Kokapen zehatzeko neurriak

Esther Ferrer artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Erika Ede



Esther Ferrer

Proiektu espazialak saila (Serie Proyectos espaciales), 2006/2018

Hari zuria eta pintura

Kokapen zehatzeko neurriak

Esther Ferrer artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Erika Ede



Esther Ferrer

Proiektu espazialak saila (A bertsioa) [Serie Proyectos espaciales (Versión A)],

1980ko hamarkadaren bukaera

Maketa

Neurri aldakorrak

Esther Ferrer Artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbo, 2018



Esther Ferrer

Proiektu espazialak saila: A modulu gorria (Serie Proyectos espaciales:

Módulo rojo A), 1990/2018

Hari gorria


Kokapen zehatzeko neurriak

Collection Centre National des arts plastiques, Paris

N.º inv. : Fnac 2018-0008

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Erika Ede



Esther Ferrer

Proiektu espazialak saila (Serie *Proyectos espaciales*), 2000/2018

Hari beltza eta nailonezko hari gardena

Kokapen zehatzeko neurriak

Esther Ferrer artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Erika Ede



Esther Ferrer

Aulkiak zintzilik saila (Serie *Sillas suspendidas*), 1980ko hamarkada

Koloretako errotuladoreak paper gainean

20 x 30 cm

Esther Ferrer Artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbo, 2018



Esther Ferrer

Aulkiak zintzilik saila (Serie *Sillas suspendidas*), 1980ko hamarkada

Maketa

Neurri aldakorrak

Esther Ferrer Artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbo, 2018



Esther Ferrer

Aulkiak zintzilik saila (Serie *Sillas suspendidas*), 2000/2018


Pintura beltza, hari zuria eta zurezko aulkia

Kokapen zehatzeko neurriak

Esther Ferrer artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Erika Ede



Esther Ferrer

Instalazioak aulkiekin saila (Serie *Instalación con sillas*), 1984/2018


Plastikozko eta altzairuzko 12 aulki beltz eta hari beltza

Kokapen zehatzeko neurriak

Esther Ferrer artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Erika Ede



Esther Ferrer

Munduko barreak (Las risas del mundo), instalazioa, 1999/2018

37 ikus-entzunezko pantaila, metalezko egiturak eta binil-materiala

4 x 12,70 x 6 m

Esther Ferrer artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Erika Ede



Esther Ferrer

Instalazioa elementu elektrikoekin (Instalación con elementos eléctricos),

80ko hamarkadaren erdialdea/2018

Altzairuzko kablea, dorre elektrikoetako kristalezko

isolamendu-diskoak eta hondakin elektrikoak

Kokapen zehatzeko neurriak

Esther Ferrer artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Erika Ede



Esther Ferrer

Erakusketa baten sarrera (Entrada a una exposición), 1990/2018

Marabu-luma natural zuri eta beltzak

2,30 x 1 x 3 m

Esther Ferrer artxiboa

© Esther Ferrer, VEGAP, Bilbao, 2018

Argazkia: Erika Ede

